



## Streaming aroa

### Urtzi Urkizu

**Bilduma:** Patrika

**Formatua:** 11 x 17 cm.

**Orrialdeak:** 114

**Koadernaketa:** paperezko azala

**Argitalpen data:** 2026/02/18

**ISBN:** 978-84-9868-960-0

**SALNEURRIA (BEZ gabe):** 13,46 €

**SALNEURRIA (BEZ bane):** 14,00 €

PLATAFORMEN AROA, IKUS-ENTZUNEZKOAK,  
EUSKARA, KONTSUMO OHITURAK, IKUSPEGI  
KRITIKOA



## Sinopsia

Hamar urte bete berri dira Netflix streaming plataforma mundu osoan zabaldu zenetik. Euskal Herrian ere erraz zabaldu zen, eta herritarren parte handi bat bere atzaparretan murgildu da. Nola aldatu dira urteotan ikus-entzunezko edukien kontsumo ohiturak? Zer dago streaming plataforma handien atzean? Nola funtzionatzen dute? Galdera horiei eta beste askori erantzuteko ahalegina egiten du Urtzi Urkizuk, gai hauetan kazetari eskarmentuduna denak. Streaming plataformen inguruan idatzi ohi du autoreak egunero euskarazko prentsan, eta saiakera honetan patxadarako tarte bat hartu du aipatutako galdera horien gainean idazteko. Datu zehatz ugari emanda, eta bere iritzikritikoa ere plazaratuz. Haren azken mezua honako hau da: ikuslea ez dadila plataformen algoritmoaren mende gelditu, eta ireki dezala leihoa; tentuz begira dezala zer ikusi eta zer ez.

## Egileaz



### Urtzi Urkizu Adrian (Lezo, 1975)

Kazetaria, *Euskaldunon Egunkaria*-n erredaktore izan zen, eta *Berria*-n lan egiten du 2003an sortu zenetik, komunikazioari, kazetaritzari eta ikus-entzunezkoei buruzko gaietan espezializatuta. Bi dokumental zuzendu, hainbat liburu kolektibotan parte hartu, eta bakarka bi literatura lan argitaratu ditu. 2024an, *Txoria hodei artean* liburua argitaratu zuen, Euskal Telebistaren iraganari eta etorkizunari buruzkoa. 2025ean, Europako Midas kazetaritza saria eman zioten, hizkuntza gutxituetako komunikabideen inguruan idatzitako artikulua eta elkarrizketengatik.